



## TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2020KO UZTAILA

Uztaila lehorra eta beroa izan zen. Muturreko fenomenoek buruzko abisu oso gutxi igorri ziren, eta guztiak hileko azken egunetan igorri ziren. Arrazoi nagusia tenperatura altuak izan ziren. Aipatzekoa da hilaren 30eko bero kolpea; kostaldean eta kantauri isurialdearen barnealdean uztailean ordura arteko tenperaturarik altuenak neurtu ziren, eta zenbait estazioetan inoizko altuenak. Egun horretan bertan, tenperatura altu iraunkorren lehen egoera gertatu zen, zehazki Ebro ibarrean. Ondorengo egunera arte luzatu zen eta iragate-zonara ere hedatu zen.

### Prezipitazioa

Uztaila lehorra izan zen, oso lehorra barnealdeko hainbat lekutan, hala nola Goierri eta Arabako beste zenbait lekutan. Bilbo Handia eta inguruetan izan ezik, oro har, urteko sasoi horretan espero zenaren erdia baino euri gutxiago egin zuen eta portzentajeak ere txikiagoak izan ziren Goierri eta Arabako zati handi batean.

Prezipitazio gehien kantauri isurialdean pilatu zen, batez ere mendi inguruetan eta kostaldean (Eskas 76.2 mm, Oiz 61.5 mm, Matxitxako 56.6 mm, Arboleda 49.4 mm, Belauntza 45.7 mm). Gutxien, berriz, Arabako Errioxan, baita Gasteizen, Arabako mendietan eta Ebro ibarrean ere (Abetxuko 3.2 mm, Zambrana 3.7 mm, Kanpezu 4.5 mm, Salvatierra 5.5 mm, Párganos 7.6 mm).

Euri-egun ( $\geq 1$ mm) kopurua kostaldean 7koa izan zen eta Arabako Errioxan bakarra, eta batez ere hilabetearen lehen hamabostaldian zenbatu ziren. Ez dago gauza handirik azpimarratzeko, prezipitazioa ez baitzen oso ugaria izan ( $\geq 30$  mm), eta intentsitatea ere ez zen adierazgarria izan.

Soilik hilaren 12an gainditu ziren 10 mm ordubeteetan. Egun hartan, mendebal/hego-mendebaldetik zaparrada trumotsuak sartu ziren, oso eremu mugatuan izan zen handiak, eta batez ere kantauri isurialdean eragin zuten (Abusu 15 mm/h, Aranguren 14.5 mm/h, Ibai Eder 13.9 mm/h, Elorrio 13.1 mm/h, Lasarte 11.8 mm/h). Hilabeteke egunik euritsuena ere 12a izan zen, hala ere 20 mm-ak justu-justu gainditu ziren (Deusto 21.3 mm, Matxitxako 20.4 mm, Abusu 19.9 mm).

**Taula 1: Azken urteetan uztailean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Deusto	36.0	45.7	24.6	32.0	33.4	26.2	60.8	21.4	15.8	69.0
Lasarte	41.8	92.7	80.0	64.6	68.0	48.8	116.4	44.8	53.4	135.9
Arrasate	15.3	43.4	54.5	34.6	39.9	20	101.3	13.4	17.7	92.9
Abetxuko	14.7	28.8	64.1	10.9	9.3	20.9	37.9	41.8	14.2	30.3
Párganos	7.6	23.2	59.6	31.8	6.9	34.9	20.9	52.3	15.1	14.6



## Temperatura

Uztaila, tenperaturari dagokionez, beroa izan zen, 1981-2010 denboraldia kontuan izanda. Batez besteko tenperatura kostaldean, 20-21 °C artekoa izan zen eta Arabako Lautadan 19 °C ingurukoa, gutxi gorabehera ohikoa dena baino 0.7 °C altuagoa. Mende honetan, erdibidean dago, 2006ko markatik urrun.

Ez zen egun beroen nagusitasun argirik izan, hotzak haien artean tartekatuz joan baitziren. Hala ere, Araba hegoaldean pisu handiagoa dute hileko bigarren hamabostaldian. Bero handiko gertaerak izan ziren, baina laburrak, guztiak hilaren 27tik aurrera.

Hilaren 27an, hain zuzen, lehen abisu horia igorri zen Mediterraneo isurialdean muturreko tenperatura oso altuengatik. Kasu horretan, Araba hegoaldean neurtu ziren EAEko maximoak (Kanpezu 38.2 °C, Zambrana 38 °C, Moreda 38 °C, Subijana 36.6 °C).

Gertaera esanguratsuena hilaren 30eko bero-kolpea izan zen. Kantauri isurialdean, aurreko egunean neurtu ziren 23-24 °C-ko maximoetatik, 40 °C-tik gorako balioetara pasa ziren. Mediterraneo isurialdean tenperaturaren gorakada ez zen hain bat-batekoa izan, hala ere, Araba erdialdean asko igo zen, Arabako Errioxan salbu. Egoera horrekin, alerta laranja ezarri zen tenperatura oso altuengatik lurralde osoan. Horrez gain, uztaileko tenperatura maximoen markak hautsi ziren kostaldean (Galdakao 41.8 °C, Derio 41.1 °C, Muxika 40.9 °C, Oiartzun 40.8 °C, Higer 41.2 °C) eta baita kantauri barnealdean ere, nahiz eta bertan sakabanatuago egon, Enkarterrien eta Tolosaldearen artean (Sodupe 41.7 °C, Balmaseda 40.2 °C, Venta Alta 39.6 °C, Saratxo 40.3 °C, Iurreta 40.5 °C, Arrasate 40.6 °C, Araxes 40.2 °C, Belauntza 39.9 °C). Are gehiago, estazio gutxi batzuetan urte osoko marka absolutua gainditu zen (Sodupe 41.7 °C, Arboleda 38.4 °C, Jaizkibel 38 °C).

Bestalde, hilaren 30eko minimoak altuak izan ziren. Horrela, Ebro ondoko eskualdean tenperatura altu iraunkorren atalaseak gainditu ziren (Moreda 22.7 °C, Páganos 20.9 °C, Zambrana 15.9 °C). Hilaren 31n, goizaldean tenperatura ez zen 20 °C-tik jaitsi kostaldean (Galindo 22 °C, Bermeo 21.2 °C, Zarautz 22.1 °C, Higer 23.8 °C) ezta EAEko ekialdearen barnealdeko zenbait tokitan ere (Zegama 22 °C, Ilarduia 21.7 °C, Moreda 20.9 °C, Egino 20 °C). Gaua iristean iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdeko zenbait estaziotan termometroa ez zen 17-18 °C-tik jaitsi, eta eguneko tenperatura maximoak altuak izan ziren berriro ere. Hortaz, tenperatura altu iraunkorren atalaseak gainditu ziren (Moreda 38.8 °C, Kanpezu 37.6 °C, Zambrana 36.9 °C, Espejo 36.5 °C, Salvatierra 36.5 °C).

Temperatura altuagatik, hego-osagaiko haizeagatik eta hezetasun erlatibo baxuagatik baso-sute arriskua oso altua izan zen EAEn, ondorioz, hilaren



30erako alerta laranja igorri zen, eta hurrengo egunera abisu horia moduan luzatu zen Mediterraneo isurialdean.

Minimoei dagokienez, balio baxuenak hilaren 4koak izan ziren. Arabako zenbait tokitan, ez zuten 5 °C-ren muga gainditu, batez ere Arabako mendialdean, izan ere, Iturrietako mendietan izotz puntura jaitsi zen temperatura (Iturrieta, 0,8 °C). Hala ere, egun argi hartan, maximoak azkar igo ziren, Araba hegoaldean 30 °C-ra iritsi arte.

Tenperatura altuak izateaz gain, urteko sasoi horretan ohikoa dena baino intsolazio handiagoa izan zen, % 20-30 handiago orokorrean, Arabako Errioxan izan ezik, bertan anomalia ez baitzen % 10era iritsi.

**Taula 2: Uztailean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Deusto	20.5	21.0	21.8	19.8	21.1	21.6	20.3	22.1	19.7	19.2
Lasarte	20.0	20.3	21.2	19.8	19.8	20.8	19.2	21.7	19.0	18.2
Arrasate	18.9	19.8	20.1	19.4	19.0	20.1	18.2	21.4	18.1	17.1
Abetxuko	18.9	19.9	20.1	19.5	19.3	20.7	18.5	21.3	18.1	17.1
Párganos	21.1	21.9	20.9	21.1	20.8	22.3	19.4	22.4	19.4	18.9

## Haizea

Uztailean itsasaldeko haizea nagusitu zen, oro har ahula, hein handi batean egun askotan antizikloia ziri moduan sartu zelako Kantaurin. Tarteka eki/ipar-ekialdeko fluxua ere ibili zen, zubi antiziklonikoko egoeretan, presio altuak argiago barneratu zirenean Europan. Hegoaldeko haizea soilik bitan ibili zen, hilaren 27an eta 30ean.

Azken egun hartan neurtu ziren hilabeteko haize-bolada gogorrenak, eta soilik aldi hartan gainditu zuten 100 km/h-ko muga. Bizkaia barnealdeko mendiko estazio gutxi batzuetan gertatu zen (Orduña 119.9 km/h, Untzueta 105.1 km/h, Oiz 103.3 km/h) eta haizegunea ez den Mallabian ere (103 km/h).

Hilabeteko gainerako egunetan soilik behin neurtu zen ufada oso gogorra ( $\geq 70$  km/h), hilaren 12an hain zuzen, 76 km/h Oizen.

## Analisia

### Uztailaren 1etik 3ra

Uztaila eguraldi fresko eta ezegonkor samarrarekin hasi zen. Azoreetako antizikloia izan zen protagonista egun horietan, eta iparraldeko haizea nagusitu zen, batez ere Kantaurin. Horri esker, behe-hodeiak sortu ziren kantauri isurialde osoan, bereziki hilaren 2an, fronte hotz baten isatsak hodei trinkoagoak ekarri



zituenean, eta euria egin zuen ipar partean. Egun hartan, frontea iritsi eta tenperaturak behera egin zuen. 850 hPa-eko mailan 12-14 °C-tik, hilaren 1ean, 5-6 °C-ra pasa zen hilaren 2ko arratsaldean. Hilaren 3an, egunak aurrera egin ahala egoerak hobera egin zuen, baina oraindik zerua hodeitsu egon zen eta tenperatura maximoak 20 °C ingurukoak izan ziren toki askotan.

### Uztailaren 4tik 12ra

Hilaren 4tik aurrera, Azoreetako antizikloia mendebaldetik sartu zen, Kantaurira zabaldu zen presio altuko ziri modura, eta horrek egonkortasuna ekarri zuen. 850 hPa-eko mailan, tenperatura 16 °C-ra igo zen hilaren 5ean. Hala ere, hilaren 4ko goizaldea eta lehen orduak hotzak izan ziren, zeru garbiaren, atmosferaren egonkortasunaren eta aurreko eguneko maximo baxuen ondorioz. Arabako Mendialdean izotz puntura hurbildu zen termometroa, 0,8 °C-ko minimoarekin Iturrietan, baina maximoak azkar igo ziren, 30 °C-ra iritsi arte Araba hegoaldean. Hurrengo egunetan eguraldia egonkorra izan zen, hilaren 6an, 10ean eta 12an izan ezik. Orduan fronte hotz batzuk presio altuen eremuan sartu eta oso ahulduta iritsi ziren, ipar partean zerua oso hodeitsu eta zirimiria utziz. Fronte horiek iristearekin batera, 500 hPa-eko mailan aska txikiak sortu ziren, ondorioz, Penintsularen erdialdean eta ekialdean ekaitzak sortu ziren. Hilaren 10ean eta, bereziki, 12ko goizaldean, Araba hegoaldean izan zuten eragina. Mendebaldetik ekialdera mugitu ziren eta zenbait estaziotan ordubetean 10 mm baino gehiago utzi zituzten.

### Uztailaren 13tik 18ra

Uztailaren 13tik 18ra bitarteko astean udako ohiko egoera nagusitu zen; Kantaurin Azoreetako antizikloia ziri moduan sartu zen. 500 hPa-eko mailan egoera egonkorra izan zen, Azoreetatik Europa mendebaldera eta iparraldera presio altuko gailur bat zabaldu baitzen. Hilaren 13an eta 18an ziria indar handiagoz sartu zen eta giroa eguzkitsua izan zen. Hala ere, gainerako egunetan ziria zertxobait mugitu zen eta ipar/ipar-mendebaldeko haizearekin behe-hodei ugari agertu ziren ipar partean, batez ere lehen eta azken orduetan. Tenperatura apur bat freskoa izan zen, 850 hPa-eko mailan, 8-9 °C-tik 14 °C-ra artekoa.

### Uztailaren 19tik 21era

Hilaren 19az geroztik Atlantikoko presio altuak Europarantz zabaltzen eta mugitzen joan ziren eta egonkortasuna gero eta handiagoa izan zen. 500 hPa-eko mailan Afrikako presio altuko gailurra Penintsularantz zabaldu zen, 850 hPa-eko mailan aire-masa oso bero batekin batera, eta hilaren 19an tenperatura 20-22 °C-ra iritsi zen. Lurrazalean, balio maximoak 30 °C-tik gorakoak izan ziren barnealde osoan, eta 36 °C-ra iritsi ziren Araba hegoaldean.

### Uztailaren 22tik 24ra

Hilaren 22an, fronte ahul batek zerua oso hodeitsu utzi zuen berriro ere, bereziki ipar partean, eta zirimiria pixka bat egin zuen. Presio altuak berriro mendebaldera mugitu ziren eta tenperatura ohiko balioetara jaitsi zen 850 hPa-eko mailan, 12-13 °C-ra.



### Uztailaren 25etik 29ra

Hilaren 25etik aurrera, ziri antiziklonikoa nagusitu zen berriro ere EAEn, mendebaldetik sartuz. Eguraldia egonkorra izan zen, ipar partean ipar/ipar-mendebaldeko haizea nagusitu zen, ondorioz, tenperatura ez zen larregi igo zonalde horretan. Hala ere, lurraldearen hegoaldean tenperatura asko igo zen, eta hilaren 27an 23 °C-ra iritsi zen 850 hPa-eko mailan. Hilaren 28an, ziria mendebaldera apur bat mugitu zen eta fronte hotz ahul batek hodeiak eta zirimiria utzi zituen ipar isurialdean.

### Uztailaren 30etik 31ra

Hilabetearen azken egunetan uda beteko giroa nagusitu zen. Hilaren 30ean, tenperatura maximoak izugarri igo ziren. Ia 43 °C-ak harrapatu ziren Bizkaiko tokiren batean eta sareko estazio askotan 40 °C-ren muga gainditu zen. Afrika iparraldetik aire beroa sartu zen, 850 hPa-eko mailan 25-27 °C-ko balioekin, eta hego-ekialdeko haizeari eta Fohen efektu faltsuari esker, tenperatura altu hauek neurtu ziren, izan ere, toki askotan markak hautsi ziren. Hilaren 31n, Mediterraneo isurialdean bero handia egiten jarraitu zuen, aldiz, Kantauri isurialdean tenperatura asko jaitsi zen ipar-mendebaldeko haize freskoaren eraginez.






## Oinarrizko datu estatistikoak

**Taula 3: 2020ko uztaileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m <sup>2</sup>	Egun batean pilatutako euri max l/m <sup>2</sup>	Euri- egunak
Deusto	20.5	23.9	40.4	17.2	12.8	0	36.3	21.3	7
Lasarte	20.0	24.3	40.7	16.0	11.6	0	43.1	12.0	8
Arrasate	18.9	25.5	40.6	13.4	8.1	0	15.3	5.3	5
Abetxuko	18.9	26.9	35.9	14.7	6.2	0	3.2	2.4	1
Páganos	21.1	29.0	36.4	14.7	8.6	0	7.6	4.1	2



## Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
 
 Temperatura minimoa
 
 Batez besteko temperatura
 
 Temperatura maximoa




## Prezpitazioaren jokaera


**Behatutako prezpitazioa**  
*Precipitación observada*




**Prezpitazio normala**  
*Precipitación normala*



**Prezpitazio normalarekiko desbideratzea**  
*Desviación respecto a la precipitación normal*



**Prezpitazio normalarekiko portzentaia**  
*Porcentaje respecto a la precipitación normal*





## Muturreko balioak

### Tenperatura maximo absolutua uztailean

Izena	Data	Egungo errekorra 2020ko uztaila (°C)	Data	Aurreko errekorra uztaila XXI mendea (°C)	Estazioa jarritako urtea
Matxitxako	2020/07/30	39	2019/07/23	36.0	2008
Higer	2020/07/30	41.2	2013/07/31	38.7	2010
Jaizkibel	2020/07/30	38	2019/07/23	35.9	1994
Eskas	2020/07/30	36.5	2019/07/23	34.4	2017
Galdakao	2020/07/30	41.8	2019/07/23	40.4	2017
Sangroniz	2020/07/30	40.6	2016/07/18	39.2	2012
Añarbe	2020/07/30	38.9	2016/07/19	37.6	2000
Andoain	2020/07/30	39.1	2019/07/23	38.0	1995
Oiartzun	2020/07/30	40.8	2019/07/23	39.7	1998
Araxes	2020/07/30	40.2	2019/07/23	39.2	2011
Balmaseda	2020/07/30	40.2	2019/07/23	39.3	1993
Derio	2020/07/30	41.1	2013/07/31	40.2	1996
Arboleda	2020/07/30	38.4	2019/07/23	37.7	2004
Muxika	2020/07/30	40.9	2019/07/23	40.2	1998
Venta Alta	2020/07/30	39.6	2016/07/18	39.0	2014
Arrasate	2020/07/30	40.6	2019/07/23	40.1	1998
Saratxo	2020/07/30	40.3	2019/07/23	39.8	1992
Ameraun	2020/07/30	38.4	2019/07/23	37.9	1992
Berastegi	2020/07/30	38.1	2019/07/23	37.7	2000
Sodupe	2020/07/30	41.7	2019/07/23	41.4	2001
Ereñozu	2020/07/30	35.8	2019/07/23	35.6	1992
Belauntza	2020/07/30	39.9	2016/07/19	39.7	1998
Iurreta	2020/07/30	40.5	2016/07/18	40.4	2001
Matxitxako	2020/07/30	39	2019/07/23	36.0	2008
Higer	2020/07/30	41.2	2013/07/31	38.7	2010
Jaizkibel	2020/07/30	38	2019/07/23	35.9	1994
Eskas	2020/07/30	36.5	2019/07/23	34.4	2017
Galdakao	2020/07/30	41.8	2019/07/23	40.4	2017
Sangroniz	2020/07/30	40.6	2016/07/18	39.2	2012





## Urte osoko tenperatura maximo absolutua

Izena	Data	Egungo errekorra 2020 (°C)	Data	Aurreko errekorra XXI mendea (°C)	Estazioa jarritako urtea
Matxitxako	2020/07/30	39	2011/06/26	36.4	2008
Higer	2020/07/30	41.2	2013/07/31	38.7	2010
Eskas	2020/07/30	36.5	2019/07/23	34.4	2017
Galdakao	2020/07/30	41.8	2019/07/23	40.4	2017
Sangroniz	2020/07/30	40.6	2016/07/18	39.2	2012
Jaizkibel	2020/07/30	38	2003/06/21	37.3	1994
Arboleda	2020/07/30	38.4	2019/07/23	37.7	2004
Venta Alta	2020/07/30	39.6	2016/07/18	39.0	2014
Sodupe	2020/07/30	41.7	2019/07/23	41.4	2001



## Muturreko egoerak

**Uztailean 4 abisu hori igorri ziren, guztiak hilabetearen azken txanpan, eta ondoren adierazten den moduan banatu ziren: 2 baso-sute arriskuagatik eta 2 muturreko temperatura oso altuengatik.**

**Horrez gain, alerta laranja bat igorri zen muturreko temperatura oso altuengatik.**

- Hilaren 12an, ordubeteen 15 mm pilatu ziren. Egun hartan, mendebal/hegomendebaldetik zaparrada trumoitsuak sartu ziren eta batez ere kantauri isurialdean eragin zuten (Abusu 15 mm/h, Aranguren 14.5 mm/h, Ibai Eder 13.9 mm/h, Elorrio 13.1 mm/h, Lasarte 11.8 mm/h).

Estazioa	Prezipitazioa ordubeteen (mm/h)	Ordua UTC
Abusu	15	06:00

- Hilaren 27an, kostaldearen eta barnealdearen arteko temperaturaren gradientea handia izan zen. Kostaldean ziri antizikloniko baten ondorioz ipar-mendebaldeko haizea ibili zen eta giro freskoa izan zen. Hegoaldean, aldiz, Iberiar penintsulan sorturiko baxu termikoak temperatura 35 °C-tik gora igoarazi zuen eta iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean muturreko temperatura oso altuen atalaseak gainditu ziren.

Horrez gain, zonalde horietan, baso-sute arriskua altua izan zen temperatura altuagatik, hego-osagaiko haizeagatik eta hezetasun erlatibo baxuagatik.

Estazioa	Max (°C)
Kanpezu	38.2
Moreda	38
Zambrana	38
Salvatierra	36.6
Subijana	36.6
Etura	36.5
Navarrete	36.2
Antoñana	36.1
Espejo	36.1
Páganos	36.1
Trebiño	36.1
Albaina	35.9

*Astelehena, hilak 27: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 12etatik 19etara (ordu lokala). Abisu Horia baso-sute arriskuagatik iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 12etatik 19etara (ordu lokala).*

Hilaren 30ean, Afrika iparraldetik aire beroa sartu zen, 850 hPa-eko mailan 25-27 °C-ko balioekin, eta hego-ekialdeko haizeari eta Fohen efektu faltsuaren ondorioz temperatura asko igo zen. Kostaldean eta kantauri barnealdeko estazio



askotan gainditu zen 40 °C-ren muga, izan ere, muturreko tenperatura oso altuen maila gorriko balioetara iritsi ziren eta uztaileko tenperatura maximoen errekorrak neurtu ziren. Are gehiago, estazio gutxi batzuetan urte osoko marka absolutua gainditu zen (Sodupe 41.7 °C, Arboleda 38.4 °C, Jaizkibel 38 °C). Iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean balioak ez ziren hain altuak izan eta muturreko tenperatura oso altuen maila horiko balioak neurtu ziren.

Estazioa	Max (°C)	Estazioa	Max (°C)	Estazioa	Min (°C)
Galdakao	41.8	Iurreta	40.5	Moreda	22.7
Sodupe	41.7	Deusto	40.4	Oiz	21.9
Alegia	41.6	Ibai Eder	40.4	Párganos	20.9
Aranguren	41.5	Saratxo	40.3	Orduña	20.2
Higer	41.2	Berriatua	40.2		
Derio	41.1	Altzola	40.2		
Muxika	40.9	Amorebieta	40.2		
Behobia	40.8	Balmaseda	40.2		
Oiartzun	40.8	Araxes	40.2		
Lasarte	40.7	Gardea	40.1		
Miramón	40.7	Zizurkil	40		
Sangroniz	40.6	Berna	40		
Arrasate	40.6				

Bestalde, hilaren 30ean minimoak ere altuak izan ziren. Horrela, Ebro ondoko eskualdean tenperatura altu iraunkorren atalaseak gainditu ziren.

Estazioa	Max (°C)	Min (°C)
Moreda	38	22.7
Párganos	36.1	20.9
Zambrana	38	15.9

*Osteguna, hilak 30: Alerta Laranja muturreko tenperatura oso altuengatik 12etatik 21etara (ordu lokala).*

- Hilaren 30ean, baso-sute arriskua altua izan zen EAE osoan tenperatura altuagatik, hego-osagaiko haizeagatik eta hezetasun erlatibo baxuagatik. Mediterraneo isurialdean, egoera hilaren 31ra luzatu zen.

*Osteguna, hilak 30: Alerta Laranja muturreko tenperatura oso altuengatik 12etatik 21etara (ordu lokala). Alerta Laranja baso-sute arriskuagatik 12etatik 24etara (ordu lokala).*

*Ostirala, hilak 31: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 00etatik 20etara (ordu lokala).*

- Hilaren 30ean, 100 km/h-tik gorako hego-osagaiko haize-boladak izan ziren Bizkaia barnealdeko zenbait haizegunetan eta 80 km/h-tik gorakoak Bizkaia barnealdeko eta Arabako Errioxako haizegunek ez diren tokietan.



Haizegunea	Max (km/h)	Haizegunak ez diren lekua	Max (km/h)
Orduña	119.9	Mallabia	103.0
Untzueta	105.1	Iurreta	87.8
Oiz	103.3	Moreda	82.8

- Hilaren 31n, Mediterraneoko isurialdean beroa egiten jarraitu zuen. Gauean tenperatura altuak neurtu ziren, hortaz, tenperatura altu iraunkorren atalaseak gainditu ziren iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean. Horrez gain, muturreko tenperatura oso altuen maila horira ere iritsi ziren bi zonaldetan.

Estazioa	Max (°C)	Min (°C)
Moreda	38.8	20.9
Kanpezu	37.6	16.3
Zambrana	36.9	16
Espejo	36.5	15.1
Salvatierra	36.5	19.7
Paganos	36.4	19.7
Albaina	36.1	16.4
Subijana	36.1	13.6
Arkauti	35.5	16.3
Trebiño	35.5	15.3
Alegría	35.4	19.4
Antoñana	35.2	14.7
Navarrete	35.2	17.7
Ilarduia	35.1	21.7

*Ostirala, hilak 31: Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik iragate-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 12etatik 18etara (ordu lokala).*



## Terminologia

*Batez besteko tenperatura:* hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak  $\geq 1$  mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

*Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:*  $f < \%20$ . tenperatura, urterik beroenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso hotza:*  $f \geq \%80$ . tenperatura, urterik hotzenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

*Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea*  $f < \%20$ . prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso lehorra:*  $f \geq \%80$ . prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke:

[http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual\\_estilo/eu\\_9900/eu\\_manual.html](http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html).

**OHARRA:** txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatu gabe daude.